

BERRITU EZAZU

“JUAN TORRES”
IDEIA BERRITZAILEEN
III. LEHIAKETA

2007KO AZAROA
DBHKO ETA ERDI MAILAKO ETA GOI
MAILAKO ZIKLOETAKO IKASLE GUZTIEI
ZUZENDUTA.

EDOZEIN EUSKARRIAN AURKEZTU
AHAL DA. SARIAK: 6 SARI, 2000
EUROTAKO 3 ETA 1000 EUROTAKO 3.

AURKEZPEN EPEA 2007KO
AZAROAREN 10EAN BUKATZEN DA.

INFORMAZIO GEHIAGO
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

T. 943179151

www.ermua.es



ermua
berrikuntza puntua

ERMUAKO UDALA
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

1 IDEIA BERRITZAILEEN ETA ENPRESA ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN LEHIAKETA 3

1.1 MODALITATEA: "IDEIA BERRITZAILEAK ETA SORTZAILEAK" 3

1.1.1 Norentzat den 3

1.1.2 Proposamenen edukia 3

1.1.3 Noiz eta non aurkeztu 3

1.1.4 Baldintzak 4

1.1.5 Sariak 4

1.1.6 Ebaluazio Batzordea 4

1.1.7 Jabetza intelektuala 4

1.1.8 Erabakia 4

2007KO AZARO
DBHKO ETA ERD
MALAKO ZIKLOE
GUZTIEI
ZUZENDUTA.

EDOZEIN EUSKARRIAN AURKEZTU
AHAL DA. SARIAK: 500.000
EUROTAKO 3 ETA 400.000 EUROTAKO 3.

AURKEZPEN EPEA 2007KO
AZAROAREN 15EAN BUKATZEN DA.

INFORMAZIO GEHIAGO
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

T. 943179151

www.ermua.es



ermua
berrikuntza puntua

ERMUAKO UDALA
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

1 IDEIA BERRITZAILEEN ETA ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN LEHIAKETA

Ermuko Udalaren Ekonomia Garapen, Enplegu eta Prestakuntza Arloak **Ideia Berritzaileen eta Enpresa Proiektu Berritzaileen 2007ko Juan Torres lehiaketan** parte hartzeko deia egiten du. Lehiaketaren aurtengo edizioan, honako modalitate hauek egongo dira aukeran:

1.1 *ideia berritzaileak eta sortzaileak*

1.2 *duela gutxi sortutako enpresa berritzaileen negozio-planak.*

1.1 “Ideia berritzaileak eta sortzaileak” modalitatea.

Ezagutzen oinarrituriko egungo testuinguru sozioekonomikoan gizarte-ehun sortzailea sortzea – ezagutza berria sortuko duena– oso garrantzi handiko balio erantsia da sormen hori duten pertsonen eta komunitateen garapenerako. Arazoei konponbide ugari emateko giza gaitasuna da sormena. Gizaki guztiok berez, jaiotzatik, daukagu sortzeko gaitasuna, sormena ez baita bakar batzuen dohaina: musikariena, pintoreena, idazleena, artistena,... Sormena garatuz, arrazoitzeko, gauzak zalantzan jartzeko eta eguneroko arazoentzat konponbide berritzaileak bilatzeko ahalmena geureganatzen dugu gizakiok.

Gazteen artean sormenezko pentsaera sustatzea da, hain zuzen, lehiaketaren modalitate horren helburua. Horrela, gure gizartea anitza izango da, eta ezagutza-gune berriak sortuko ditu etengabe, halaxe gertatzen baita gizarte dinamiko aurreratu orotan. Sormenak hazten eta trebatzen laguntzen die gazteei. Izan ere, sormena landuz, beraien kasa pentsatzen ikasten dute, besteen pentsamenduak jasotzera mugatu beharrean. Gure lehiaketak norbere pentsamendua sustatzea du helburu.

1.1.1 Norentzat da

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta erdi eta goi mailako heziketa-zikloetako ikasleentzat.

1.1.2 Proposamenen edukia

Lehendik dauden objektuentzat erabilera edo aplikazio berri bat proposatuko da, edo bestela, produktu edo prozesu berriak aurkeztuko dira (berdin dio merkatuan nolako potentzialtasuna duten). Sormena sustatu nahi da funtsean, merkatu-aukerak baino gehiago (adib.: hondakin materialak dekoraziorako, erabilera baliagarriak ontzientzat, sormenezko diseinuak, erabilera berriak makinentzat, etab.).

Proposamenak edozein euskarritan eta formatutan aurkeztu daitezke: paperean, maketan, ikus-entzunezkoen bidez, etab.

Paperaz bestelako formatuetan aurkeztutako proposamenak Lobiano Kultur Gunean egongo dira ikusgai, toki-garapenaren astean.

1.1.3 Noiz eta non aurkeztu

Proposamenak 2007ko azaroaren 10a baino lehen aurkeztuko dira Ermuko Udaleko Erregistroan. Helbidea hau da: Valdespina markesaren kalea z.g. Aurkezpena egokia ez izateagatik proposamena zuzendu egin behar izanez gero, beste 5 eguneko epe osagarria emango zaie horretarako.

Proposamenetan behar diren datu guztiak adieraziko dira, Udalak sustatzaileekin harremanetan jarri ahal izan dadin.

1.1.4 Baldintzak

- a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasle guztiek hartu dezakete parte lehiaketan.
- b) Bakarka nahiz taldean egindako proposamenak aurkeztu daitezke.

1.1.5 Sariak

Guztira 9.000 euro banatuko dira aukeratutako sarien artean. Lehiaketako atal bakoitzaren xehetasunen arabera, honela banatuko dira sariak:

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak:** 1. saria 2000 €-koa, eta 2.a 1000 €-koa.
- **Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak:** 1. saria 2000 €-koa, eta 2.a 1000 €-koa.
- **Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak:** 1. saria 2000 €-koa, eta 2.a 1000 €-koa.

Lehiaketaren irabazleak eta bere ikastetxeak saria erdibana jasoko dute, bakoitzak % 50, eta zenbatekoa saria ematerakoan ordainduko da.

Adingabearen nahiz ikastetxearen izenean, adin nagusiko ordezkari batek jasoko du saria; bestela, ez da emango. Une horretan adin nagusiko ordezkariak ez dagoelako saria eman gabe geratuz gero, ikastetxeko ordezkariak 15 eguneko epea izango dute Udalarekin harremanetan jarri eta saria jasotzeko.

1.1.6 Balorazio Batzordea

Balorazio Batzordea Udaleko teknikariak osatuko dute. Proposamenen kalitatea eta oinarriekin bat datozen egiaztatuko dute.

Balorazio Batzordeak honako aukeraketa-irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

- Proposamena zenbateraino den originala eta berritzailea (50 puntu).
- Proposamenean jasotako ideia zenbateraino garatu den (25 puntu).
- Aurkeztutako euskarria ongi ikusten den (25 puntu)

1.1.7 Jabetza intelektual

Proiektuak (edo proiektuen jabetza intelektual) sustatzaileenak izango dira. Lehiaketaren antolatzaileek ezingo dute horiez jabetu, eta 2007ko toki-garapenaren asteko erakusketarako baizik ez dituzte erabiliko.

1.1.8 Erabakia

Epaimahaiaren erabakia azaroaren 20an emango zaie ezagutzera parte hartzaileei, jende aurreko ekitaldian, Lobiano Kultur Gunean. Era berean, dagokien komunikabideetan ere argitaratuko da.

Epaimahaiak sari guztiak edo batzuk eman gabe uzteko eskubidea izango du. Atal bateko saria ez ematea erabakiz gero, bi aukera izango ditu: kasuan kasuko zenbatekoa beste atal bati ematea, edo saririk gabe geratutako atalean kalitate nabarmena izan duten lanen ohorezko aipamena egitea.

Epaimahaiaren erabakia argitaratu eta handik astebetera, egileak lanak jasotzera joan ahal izango dira, proposamena aurkeztu zuten tokira, eta hilabete bateko epea izango dute horretarako. Epe

hori igaro eta lanen bat jaso gabe egonez gero, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango.

Epaimahaiak lehiaketa honen oinarriak interpretatzeko eta osatzeko ahalmena izango du. Bere erabakiak behin betikoak izango dira, eta ezingo da kontrako errekurtsorik aurkeztu.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri hauek eta oinarrien ondoriozko eskubide eta betebeharrak bete-betean onartu behar dira, ezinbestez.

BERRITU EZAZU

“JUAN TORRES
IDEIA BERRITZAILEEN
III. LEHIAKETA”

2007KO AZAROA
DBHKO ETA EPBKO 1. ETAPAKO
MAILAKO ZIKLOEN 1. ETAPAKO GUZTIEI
ZUZENDUTA.

EDOZEIN EUSKARRIAN AURKEZTU
AHAL DA. SARIAK: 500.000
EUROTAKO 3 ETA 100.000 EUROTAKO 3.

AURKEZPEN EPEA 2007KO
AZAROAREN 10EAN BUKATZEN DA.

INFORMAZIO GEHIAGO
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA

T. 943179151
www.ermua.es



ermua
berrikuntza puntua

ERMUAKO UDALA
SUSTAPEN ETA ENPLEGU SAILA